

Zapaturako I.Sagardo Eguna antolatuta dute Durangon

Anboto 2014-07-02 10:33 [Herririk herri Durango](#)

Herriko hamalau tabernek parte hartuko dute sagardo egunean. Eguerdiko poteoan sagardo eskainiko dute pintxo batekin, 1,10 euroren truke. Bizkaiko sagardotegietako sagardoak izango da.



| [Argazki originala](#)

Dendak Bai elkarteak HAZI fundazioaren laguntzagaz prestatu du sagardo eguna. Eusko Labeldun sagardo eta pintxoak izango dira beraz.

Honako tabernetan egingo dute eskaintza: Zero, Gure Kabiya, Anboto, Rugbym Maite, Arkupe, Pol-Pol, Lurbi, Plateruena Kafe Antzokia, Misarbe, Leku Berri, Alpino, Udaberri eta Tabirako igerilekua.

Goizean zehar 6.000 sagardo trago eta 3.000 pintxo banatzea espero dute. Pintxoak txorizodunak edo gildak izango direla azaldu dute.

"Merkataritza eta ostalaritza erlazionatzeko aukera berri bat" da zapatukoa Dendak Bai elkartetik azaldu dutenez. Hain justu, zapatuan hasiko dituzte elkarteko denek uztaileko merkealdiak.

Zabandu artikulua: [Twitter](#) [Facebook](#) [G+1](#)

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

>>> [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)

[Sign in with twitter](#) [Login with Facebook](#)

Durango / Herririk herri